


B

BARREN

TOKIKOM



Ikastolak 50 urte

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

10. EDIZIOA

IMH SARIAK

ekainak 22
12:00etan

ekainak 14rako
proposatu ikasle ohi aipagarria
www.imh.es webgunean!



Instituto de Investigación y Herramientas



EN P R E S A B A B E S L E A K



Metal Perforadora, s.a.



EN P R E S A K O L A B O R A T Z A I L E A K

AGME - ARISA - DESARROLLO DE PROYECTOS HIDRAULICOS

EKIN - ELKARMEDIA - ENGRANAJES GRINDEL - IBARMIA - ILS INDUSTRIAS ALGA - JUARISTI - KONDIA - LAIP - MAPFRE ERMUA OJMAR PIXEL SISTEMAS - SAMSIC IBERICA

IKASLE OHI AIPAGARRIA / IKASLE AIPAGARRIA / FABRIKAZIO ARLOKO IKASLEA / ELGOIBARKO IKASLE AIPAGARRIA

2012koak nortzuk ote dira? Ikusi sariak webgunean: 800 euroko ikasketa poltsa...



Aurrematrikula: uztailak 2
ikasi eta lan: prestakuntza duala

IMH Elgoibar HEZIKETA
ZIKLOAK

Matrikula: uztailak 5-11

www.imh.es – imh@imh.es - tel.943744132 - Elgoibar

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112


E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:




Laguntzaileak:



EL GOBIERNO VASCO



MENDAKO UDALA



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Idatzi honen bidez eskerrak eman nahi dizkegu larunbat arratsaldean Kalegoen plazan egin-dako *dantzan.com* orrialdearen aldeko grabaketan parte hartu zuten guztiei, bai dantzatu zutenei zein ikusten edo txaloka egon zirenei. Ia denon indarrez orrialdea berriro ere martxan jartzea lortzen dugun, euskaldunontzat eta batez ere, dantzariontzat ezinbestekoa baita.

Haur eta ikasleen gurasoei, lagunei, senideei... ere eskerrak, bai dantzan ikastera animatzearren eta baita jaialdiko partehartzaileen lana ikusi eta txalotzearen ere, Haritz euskal dantzari taldearen harrobia etengabe elikatzeko bidea horixe baitugu.

Gure Zuberoko emanaldian jasotako txalo zaparrada eta berotasuna ere eskertu behar, beste behin ere ondoan izan zaituztegun, urtean zehar antolatzen ditugun ekitaldi guztietan bezalaxe: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako kurtso bukaerako dantza jaialdian, Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdian, San Bartolome eguneko Soka dantzan, Errosarioko Amaren Ezpata-dantzan... Zuen animo eta babesik gabe zentzurik ez luke egiten dugun lanak. Mila esker guztioi.

Haritz EDT

Eskerrik asko

Debemen Elkarreak eskerrak eman nahi dizkie Trinitateetako azoka antolatzen lagundu zuten guztiei. Batez ere, hilabeteetan zehar antolakuntza bileretara etorri izan diren auzoetako alkateei, eta nola ez Armueta Harategiko Angeli. Baita ere egunean bertan dastaketa orduan laguntzera etorri ziren landa ingurune auzoetako boluntario guztiei ere. Sagardoa banatzen egon ziren gazteak ere ez ditugu ahaztu nahi. Eta Zubi-Ordo jatetxekoei ere, eskerrik asko, prestatu zuten bazkariagatik.

Debemen Elkarrea

Alternatiba integral baten alde

Bizi dugun egiturazko krisiaren aurrean, alternatiba integral bat osatzea ezinbesteko premia da gaur egungo egoera politikoan. Ezker Abertzaleak, Eusko Alkartasunak, Aralarrek eta Alternatibak, premia horri erantzun asmoz, lehen urra-

tsa egitea erabaki dugu.

Ikusi dugu krisiaren kontrako neurrien gordin-tasuna eta aurreikuspen guztiak ere larriak dira oso: langabezi eta pobrezia tasak gora, altxortegi publikoak egoera larrian, politika fiskal progresibo eta ekitatiboak bultzatzeko borondate eza... Alegia, PNVk zein PSE-EEk zuzendu dituzten gobernu autonomiko eta foralen ezintasunak agerikoak dira azken urteotan; Madrilgo politika neoliberalen jarraipen itsua egitera mugatu dira. Begibistakoak dira egungo markoak eskaintzen dizkigun eskumenen mugak eta subiranotasun ezak dakartzan premiak. Gehiengoak onartzen du egungo autonomia-estatutuen eredia agortuta dagoela, arrazoi anitz tarteko: diseinuaren mugak, eskumenen transferentzien murrizketak, inboluzio autonomikoa edota ekonomiaren erronkak aurrera eramateko tresna berrien beharra. Independentzia politiko eta instituzionalaren hautua egiten dugu, gure herriaren eta gure kulturaren biziraupena bermatzeko eta nazio honetako biztanleen bizitza kalitatea hobetzeko. Izan ere, krisi honek zerbait erakutsi badigu, independentziaren egitasmoa ezinbestekoa dugula da, gure ekonomia eta jendartea eredu berri batera eramateko beharrezkoak ditugun tresna guztiak lortu eta garatzeko beste biderik ez dagoelako.

Hasieratik azpimarratu nahi dugu proposamenaren izaera irekia, euskal herritar eta eragile-ekapenekin osatu nahiko genukeela. Horretarako, tresna desberdinak jarri ditugu martxan. Horietako bat, datorren Ekainaren 11n, astelehena, arratsaldeko 19:00etan Eibarko Armeria eskolan egingo dugun hitzaldia izango da. Gonbidatuak zaudete.

Joseba Osoro (Aralar), Miren Arrate Arrieta (EA) eta Iñaki Bengoetxea (Ezker Abertzalea)

OHARRA

Gure hutsegite bat tarteko, joan zen asteko alean oker argitaratu genuen Manuela Ansola Ayerdiri zegokion I. urteurrenko eskertza. Manuela Ansola Ayerdiren argazkia behar zuen lekuan Manuela Ansola Agirregomezkortaren erretratua argitaratu genuen. Lerro hauen bidez, **BARREN**ek barkamenak eskatu nahi dizkie publikoki Manuela bien senitartekoei.

Barren

Gaur zortzi zabalduko dituzte Mintxetako aire libreko igerilekuak

lazko uda denboraldian 42.065 erabiltzaile izan zituzten Mintxetako igerilekuek

Dena prest dago uda denboraldia hasteko, eta datorren barixakuan zabalduko dituzte Mintxetako aire libreko igerilekuak, 11:00etan. Une horretatik irailaren 9ra arte egongo dira igerilekuak zabalik, astelehenetik domekara. Asteazkenetik 11:00etan zabalduko dituzte, eta asteburuetan, aldiz, 10:30ean. Itxi, berriz, ekainean eta uztailaren 20:30ean, eta abuztuan eta irailean, 20:00etan.

Prezioak

Kirol Patronatuko bazkideek eta 3 urtetik beherakoek doan daukate aire libreko igerilekuetarako sarrera. Bestela, 18 urtetik gorakoek zortzi euro ordaindu beharko dituzte eguneko sarrera, eta 18 urtetik beherakoek 5 euro. Horrez gain, arratsaldean soilik joan nahi duenarentzat beste prezio bat izango du sarrerak. 16:00etatik aurrera 3,20 euro ordaindu beharko dituzte 18 urtetik beherakoek eta gainontzekoek 4,20 euro. Era berean, nahi duenak uda denboraldiko bonoa ateratzeko aukera ere badauka. Hauek dira prezioak:

- 18 urtetik beherakoak: 55 euro
- 18 urtetik gorakoak: 61,5 euro
- Familiarra: 108,5 euro
- Unibertsitarioa: 57 euro



- Jubilatua: 55 euro
- Ezindua: 51 euro

Urtero-urtero lagun asko ibiltzen dira Mintxetan, bai herrikoak eta baita kanpokoak ere. lazko uda denboraldian, esate baterako, 42.065 lagun ibili ziren igerilekuetan. Aurreko urtetik apur bat behera egin zuen erabiltzaile kopurua, baina Patronatuko arduradunak 'pozik' agertu ziren kopuru horrekin, uztailaren eta abuztuan "eguraldi kaskarra" egin zuelako.

laz hasitako bideari jarraituz, aurten

ere erabiltzaileentzako hainbat ekitaldi antolatzeke asmoa dauka Kirol Patronatuak, baina aurrerago emango dute horren berri.


Jarraian dituzte azken urteotako erabiltzaile kopuruak:

2011 -> 42.065	2007 -> 15.000
2010 -> 48.000	2006 -> 29.000
2009 -> 55.056	2005 -> 32.000
2008 -> 34.342	

Irabaneta baserritik Erentzara arteko kaltetada zaharra garbituko dute bihar Mendaron, auzolanean

Galtzeko arriskuan dauden bideak garbitzeko talde bat sortu dute Mendaron, eta bihar egingo dute lehen ekinaldia. Irabaneta baserri ingurutik Erentzara arteko kaltetada zaharra garbituko dute bihar, auzolanean, eta bide batez, Lastur aldera doan bidea ere garbituko dute. Interesa duen edonork hartu dezake parte biharko ekitaldian. Bakoitzak etxean dauzkan erremintak eramatea eskatu dute antolatzaileek, praka sendoak eta eskularruak janzteko gomendioa ere egin dute. 8:00etan irtengo dira Billaletako presatik eta eguerdi aldera arte jardungo dute lanean.

Era berean, Debako Akerzulo Espeleologia Taldeak Mendaroko San Bartolomeko leizea garbitzeari ekin zion Aste Santuan.



Ekitaldia **Negoiazio kolektiboa**



CCOO sindikatuaren deialdiarekin bat eginez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa zeharkatu zituzten hainbat lagunek joan zen astean, industria, lana eta zerbitzu publikoen defentsan. Eibar eta Arrasate arteko bidea oinez egin zuten manifestariek, Negoiazio kolektiboaren alde. *Ekoizpen eta industria ehunaren defentsan* lemapean, Elgoibarrera ere iritsi zen manifestazioa joan zen barixakuan.

Berbia **Organo emaileak**

Ekaineko lehen eguaztenean izan zen organu emaileen nazioarteko eguna, eta horren harira, Gipuzkoako Alcer elkarteak informazio mahaia jarriko ditu bihar Gipuzkoako hainbat herritan. Elgoibarren ere eskainiko dute informazioa, 10:00etatik aurrera, Kalegoen plazan. 2011n ondorengo transplanteak egin zituzten Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban: 123 giltzurrun transplante, (%5 bizirik dauden emaileenak), 61 gibel transplante, bederlatzi bihotz transplante eta hamar birika transplante. Alcer elkarteak esandakoaren arabera, Europako eta Ameriketako herrialdeetan lortutakoen oso gaitetik daude datu horiek. *Organorik gabe ez dago transplanterik* izango da aurtengo lema, eta organoak ematearen garrantzia nabarmenduko dute informazio mahai horietan.

Irudia **Patxi Zabaletaren oroimenez**

24 urte bete ziren ekainaren 6an, ETAk Patxi Zabaleta hil zuenetik. Urtero legez, larrosa gorriek gogoratu zuten elgoibartarraren hilketak San Frantzisko kalean, hil zuten leku berean, hain zuzen ere.



'Aire garbiak bira nazan' **ekitaldira joateko deia**

Ekainaren 17rako *Aire garbiak bira nazan* ekitaldia antolatu du Gipuzkoa Zero Zabor elkarteak, eta gipuzkoar guztiei egin diete ekitaldian parte hartzeko deia. Mosaiko erraldoia osatu nahi dute Donostian, eta era guztietako eragileak bildu nahi dituzte. Elgoibartik ere autobusa egongo da Donostiara joan nahi duenarentzat, 10:30ean Kinkoneko geltokian. Izena emateko Jai Alai, Iturri, Iratxo edo Lanbroan.

'Gure Balioak' sarietarako **hautagaiak aurkezteko epea ekainaren 13ra arte**

Gure Balioak sarien hirugarren edizioa antolatu du Debege-sak, eta saria eskuratzeko hautagaiak aurkezteko epea hilaren 13an amaituko da. Gure Balioak Sariak azpimarratu eta sustatu nahi dituen oinarrizko balioak integritatea, errespetua, ekintzailetasuna eta lankidetzaren elkarlana dira. Eskualdeko edozein gizarte-agentek aurkeztu ahal izango du hautagaia, herritar, enpresa, elkarte, hezkuntza zein ikerketa zentro edota erakundeek. www.gurebalioak.com helbidean aurkitu daiteke informazio gehiago.

Milagrorra irteera antolatu dute, ekainaren 21erako

Elgoibarko Zaharren Biltokiak Milagrorra irteera antolatu du datorren ekainaren 21erako. Bidaia horren barruan, Tuteran ere bisitatu dute. Horrez gain, zozketak, dantza emanaldia eta bazkaria ere egingo dituzte. Zaharren Biltokiko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 40 euro. Autobusa 8:15ean irtengo da Kalegoen plazatik, eta iluntzean itzuliko dira. Interesatuek, Zaharren Biltokian bertan eman dezakete izena.

IKASTOLAREN URREZKO EZTEIAK


Elgoibar Ikastolak 50 urte bete ditu, eta ospakizun egun handia izango dute bihar. Ikastolaren historian modu batean zein bestean protagonista izan direnekiko esker onez antolatu dute biharko jaia, eta 900dik gora lagun elkartuko dira Ikastolako kanpoko pistetan elkarrekin bazkaltzeko. Urtemuga aitzakia hartuta, Elgoibar Ikastolaren 50 urteko ibilbidearen errebasoa egin du BARRENEK.

Elgoibarko ikastolaren historia jasotzeko, 36ko gerra ostera egin behar dugu atzera. Gerra ondorengo egoerak euskalduntasunaren aldeko agerpen guztiak isilarazi zituen: euskara etxeko zuloan beste inon ez zen entzuten, eta eskolak haur guztiak erdalduntzen zituen. 1950eko hamarkadan hasi zen egoera zertxobait aldatzen. Euskal kulturaren aldeko mugimendu ezkutu eta isila lehen urratsak egiten hasi zen garai horretan: antzerkia, gau eskolak... 1958an euskarazko klaseak ematen hasi ziren Lurdes Alberdi, Miren Vallejo, Jesus Larrañaga eta Felix Etxeberria, *Xabiartxo* eta *Boga-boga* erabiliz. Geroago Ongarri euskal kultur elkartearen sortu zen Elgoibarren.

1962: Ikastola sortu zuten maiatzaren 2an. 29 ikasleko taldearekin hasi zen lanean Itziar Ajuria andereñoa. Garai zailak izan ziren. Andereñoek soldata txikia zuten, eta ez zuten Gizarte Segurantzaren kotizatzen. 63ko otsaila inguruan hasi zen Jone Etxabe andereñoa lanean, eta Nekane Iturbe izan zen lehenengo andereño tituluduna.

1963: Elgoibarko Izarra sortu zuten, besteak beste, ikastola babestu eta ekonomikoki laguntzeko. Sortu eta berehala, 1.300 bazkide bildu ziren bertara. Lokala behar zen, eta herritarren laguntzarekin, San Franzisko kaleko lokala erosi zuen (Lorituaneko Ikastola) Elgoibarko Izarrak. Horretarako, 1.000 pezetara arteko bonoak saldu zituzten etxeko etxe, Sabin Osororen ekimenez. 75.000 pezeta behar zituzten Lorituaneko lokala erosteko, eta 90.000 pezeta lortu zituzten.

Ikastola berria eraikitzeko lanak.



1962. Itziar Ajuria, Ikastolako lehenengo ikasle taldearekin.

1969: Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen sortzean da. Elgoibar Ikastola partaidea da.

1973: 1.300 bazkide zituen Elgoibarko Izarra Elkarteak aldaketa handiei ekin zien. Gure Kai E.A. (Elgoibarko Izarra kultur elkartearen izenik zituen jabetzak galtzeko arriskua ekiditeko erabakitakoa) desegin egin zen, eta Ikastolak autonomia hartu eta irailaren 12an Irakaskuntza kooperatiba egitura hartu zuen. Kooperatibari Pedro Miguel Urruzuno izena jarri zioten. 550 ikasle zituen ordurako ikastolak, eta Hezkuntza Ministerioaren lehen dirulaguntza jaso zuen. Urte horretakoa da Aubixa base-ria egokitu eta aisialdi gune gisa erabiltzeko proiektuaren ere.

Ikastolako ikasle talde bat, Aubixan.



Ikastolak Jaurlaritzaren zilarrezko Q saria jaso zueneko da eskubiko argazkia. Bigarrena Ikastolako lantaldeak Belaustegin ateratako argazkia da, eta hirugarrena Elgoibar Ikastolak 1996ko Kilometroak jaia aurkeztu zueneko. Laugarren argazkia, berriz, 1977koa da, Elgoibar Ikastolaren gaur egungo eraikina inauguratu zuteneko.



1976: Guraso eta langileen kooperatiba bihurtzen da. Danobatek donazio moduan eman zion Ikastolari lur saila, Danobateko Gizarte Ekintza-aren Funtsaren bidez, eta ikastetxe berria eraiki zuten, herriaren ekarpen garrantzitsuarekin eta gurasoen protagonismo eta konpromiso handiarekin.

1977: Ekainaren 26an inauguratu zuten ofizialki ikastetxe berria.



1978: OHO 8. mailara arte emateko baimena lortu zuen Ikastolak.

1979: Hezkuntza bereziko gela baterako baimena eta dirulaguntza lortu zuten.



1984: Haur erdaldun asko sartu zirenez, haien euskalduntzea poliki-poliki B eredutik egitea erabaki zuten. Horrela, 1979-1984 urte bitartean esperimentu gisara ezarri zuten dinamika hori. 1984. urtean ikasle guztientzat D eredia ezarri zuten.

1986: Ikastolari San Bartolome Ikastola izena jarri zioten ofizialki. Plaza Txikiko eraikinean biltzen dira Haur Hezkuntzako gela eta ikasle guztiak.

1991: Hezkuntza Baloreei buruzko inkesta bat pasatzen zaie bazkide

guztiei. Inkesta hori Santo Tomas Lizeoaren praktika bat oinarri hartuta garatu zuten.

1992: Eleanitz goiztiarraren proiektuaren bigarren ikastola multzoan sartu zen.

1993: Baloreei buruzko inkestan oinarrituz, eta Ikastolen Elkartearekin ikasitako metodo bati jarraiki, Ikastolaren Hezkuntza Proiektua zehazten eta onartzen dute. Horren diseinuan irakasleen eta guraso ordezkarien partaidetza ezinbestekoa izan zen. Gatazka handiko urtea izan zen 1993a. Otsailaren 19an Euskal Eskola Publikoari buruzko Lege proiektua onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Elgoibarko ikastolak aukera egin behar zuten: pribatu gisa jarraitu edo sare publikoan sartu. Bidegurutze horretan Kooperatibako Batzarrak Ikastola sare pribatuan geratzea erabaki zuten maiatzaren 24an.

1995: Partaide bigarren graduako Kooperatiba sortzea erabaki zuten. Euskadiko Irakaskuntza Kooperatibaren Federazioan sartu zen. Zuzendariak haren Kontseilu Erretoreko kide bezala parte hartzen du.

1996: Kilometroak 96 antolatu zuen Elgoibar Ikastolak Elgoibarren. DBHrako nahiz Batxilergorako baimena lortu zuen Ikastolak.

2001: Batxilergoko lehen ikasle multzoa osatzea lortu zuen Elgoibar Ikastolak. Elgoibar Ikastola izena onartzen zaio.

2002: Elgoibar Ikastola IKTetan ikastola pilotu izendatu zuten, beste be-deratzi ikastolarekin batera.

2003: Haur Hezkuntzako gela berriak eta Haurtzaindegi berria estreina-tu zituzten. Haur Eskolarako baimena ematen diote Elgoibar Ikastolari.

2008/2009: Ikasturtean Haur Hezkuntzan hirugarren lerroa ireki zuten.

2010: Eusko Jaurlaritzaren zilarrezko Q saria eskuratu zuten.

2011: Eusko Jaurlaritzaren urrezko Bikain hizkuntz-kudeaketaren kalitate ziurtagiria eskuratu zuten.

2012: 0 eta 16 urte arteko 850 ikasle ditu Ikastolak, eta 73 langile (hori-rietatik 67 irakasle).





Ane eta Nora Kortaberria, Edurne Bilbao eta Jesus Bilbao, atzean Elgoibar Ikastola dutela.

Ikastolaren soka

Ikastolako hiru belaunaldi osatzen dute argazkikoek. Guraso eta Ikastolako lehendakari izan zen Jesus Bilbao, eta ikastola sortzeko mugimendu hura bultzatu zutenen ondorengoak dira Edurne Bilbao eta haren alaba Nora eta Ane Kortaberria. Ikastolako ikasle izan zen Edurne, guraso da gaur egun, eta German Meabebasterretxearen lekukoa hartuko du hil bukaeran lehendakari karguan. Senideak dira laurak, eta aldi berean, familia handiago bateko kide ere badira. Ikastolaren iragana eta oraina dira.

Ikastolaren hastapeneko urte haiek gertutik ezagutu zenituen zuk, Jesus. Ez ziren urte errazak izango; zer oroitzapen dituzu?

Bai. Ikastola sortzeko ametsa gertutik ezagutu nuen, Felix Etxeberria eta Sabin Osororen bidez. Danobaten nembilen ni orduan. Gero sartu nintzen ikastolan, lehendakari izatea proposatu zidatenean, baina lehen eskuko informazioa izan nuen hasieratik. Nik lehendakari kargua hartu nuenerako, baina, zaila egina zuten besteek. Ikastola auzolanearan garatu den proiektua izan da sorreratik, eta jende askoren izerdia dago hemen. Juan Jose Araolazaren lekukoa hartu nuen nik, eta

lau urtez izan nintzen lehendakari, 1976tik 1980ra. Ordura arte Elgoibarko Izarraren eta Elizaren babesean egon zen ikastola, eta neri marko juridiko bat ematea egokitu zitzaidan. Eta hala, Kooperatiba sortu genuen. Talde ona genuen, baina ikastolaren kudeaketa profesionalizatzeko beharra ikusi nuen, eta horretan ahalegindu nintzen ni bereziki. Hala, Agustin Gorostiza ekarri genuen talde-gerente lanak betetzeko.

Trantsizio garaian hartu zenuen lehendakari kargua. Garai berezia ezbairik gabe.

Bai. 75ean hil zen Franco, eta politikan berobero zegoen dena. Alderdi politikoak sortzen

hasi ziren, sindikatuak... Neuk ere jaso nuen alderdi politiko bateko eskaintza, baina ez nuen onartu ikastolako lehendakari nintzelako eta independentea izan behar nuela iruditzen zitzaidalako. Eta lau urteko agintaldi hartan konturatu nintzen ez nuela politikarako balio, aske sentitzen nintzelako eta alderdi jakin bateko kide izateak lotura bat suposatzen zuelako.

**Garai hartako gurasoek ez zenuten apustu makala egin! Isilekoa zen ikastola, ez zuen beste eskolen besteko izenik ezta eskarmen-
turik ere, baina ikastolaren alde egin zutenen.** Nik ez nuen sekula zalantzarik izan. Irakasle-

ak ezagutzen nituen, eta iruditzen zitzaidan aitzindariak ere bazirela, eredu pedagogikoaren ikuspegitik. Gure aurretiko gurasoek, bai. Haiek bai dute meritua. Ikastolaren mugimendua sortzeko garai hartan ni oraindik ez nintzen guraso, eta ez nuen halakorik sentitu. Gureak hasi zirenerako ikastolak bide bat egina zeukan. Gure aurrekoek, Felix Etxeberriak, Sabin Osorok eta horiek, gehiago sufritu zuten hori. Kezka izango zuten, eta gainera, Damoklesen ezpata beti gainean zutela jardun zuten lanean. Noiz ikastola ixtera etorriko ziren beldur horrekin bizi egin behar da!

“Talde lanean eraiki da Ikastola. Askoren izerdia dago hemen”

Ikastola hazi eta hazi ari da. Gela berriak eraikitzen ari dira. Zer sentitzen duzu?

Jesus Bilbao: Ikastola handitzen ikustea ohore bat da niretzat. Gauza bat esango dizut: Guk ere jardun genuen hemen lanean, baina hasierako haiek aitortza berezia merezi dute, oinarri sendoa eraiki zutelako. Lehenengo urteetan proiektu asko gelditzen dira bertan behera, baina haiek egindako lan onari esker da, hein handi batean, Elgoibar Ikastola gaur dena.

Zer gogoratzen duzu pribatu izaten jarraitu edo publiko egin erabakitzeko garaiaz?

Jesus Bilbao: Garai zailak izan ziren. Lehendakari izandako guztioi deitu ziguten, eta ni gogoratzen naiz ikastola publiko egitea ere ez zela gauza txarra esan nuela. Ikastola behar batek bultzatuta jaio zen. Ordura arte euskarak ez zeukan lekurik eskolan, eta horregatik sortu genuen ikastola, baina publiko egin edo ez erabakitzeko garaia iritsi zenean, euskarak bide bat egina zeukan hezkuntzan, eta ez nuen aparteko arazorik ikusten publiko egiteko. Ikastolaren bueltan zeudenen sentimendua jaso eta gai hori ahalik eta modu naturalean kudeatu behar zela esan nien, eta halaxe egin zen. Euskara alorrean ez ezik eredu pedagogikoan ere aitzindaria izan zen ikastola, eta horrek egiten zuen berezi.

Ikastolako ikasle izan zara zu, Edurne. Orain, guraso ere bazara, eta hilabete bukaeran le-

hendakari kargua hartuko duzu. Zer da zuretzat ikastola?

Taldean eraikitako proiektu sendo eta erakarri bat. Proiektu parte-hartzaile bat.

Zer oroitzen dituzu ikasle garaiaz?

Oroitzen politak ditut. Gustura etortzen ginen Ikastolara. Bosgarren mailan etorri nintzen ni hona [Gaur egungo eraikina]. Aurretik, Lorituaneke geletan ibili nintzen andereño Nekanerekin [Iturbe]; Goitira pasatu ginen gero, Goiti enpresak Maalako parke ondoan zeukan lokalera, andereño Jone Etxaberekin. Lehenengo maila elizako lokaletan egin nuen, Antton Aranbururekin. Gitarrekin etortzen zitzagun gelara. Lana seguru egiten genuela, baina gozatu egiten genuen guk Ikastolan. Atzera eta aurrera ibili ginen, Goitiko lokaletik elizara, handik Santa Klarako komentura... Akordatzan naiz komentuan lanean jartzen gintuela Mari Karmenek, eta bera puntua egiten egoten zela bitartean. Etxeko giroa zen, goxoa, ikasteko aproposa. Bosgarren mailan hona etorri nintzenean, berriz, dena berria topatu genuen hemen. Gogoan daukat Txalupa aldiakaria kaleratzen genuela gure ipuin eta abarrekin, eta inauguraziorako prestatu genuen aleko portadan nik egindako marrazki bat irten zela.

Zerk bulzatu zintuen zure alabak Ikastolan matriculatzera?

Oso modu naturalean hartutako erabakia izan zen. Bai nire bikotekidea eta bai ni neu Ikastolan ibilitakoak gara, eta hain oroitzen onak gordetzen ditugu... Ikastola asko gartu da gainera urteotan, eta iruditzen zait oso proiektu aberatsa eta interesgarria dela. Ikastolen elkartearen barruan dago, kooperatiba da eta kooperatiben filosofiarekin bat egiten du gurasoen eta gainerako eragileen parte-hartzea bultzatuz... Aitak esan bezala, ikastola talde lanean egindako proiektua da. Alaba zaharra eskolatzeko garaia iritsi zenean izan genuen hemen lantzen ari diren proiektu guztien berri, eta gustatu zitzaidan. Orain barrutik ezagutzen dut, eta are interesgarriagoa iruditzen zait. Esperimentazio etengabea ari dira, baina gauzak ganoraz eginez. Irakaste-ko eredu ere oso erakarria egiten zait.

Jesus Bilbao: Emozioen kudeaketa oso modan dago gaur egun, eta nik esango nuke kontzeptu hori indarrean jartzen ere aitzindari izan zela Ikastola. Ikasle izandakoek esaten dutenean ikastolatik kolegiarako saltoa koloretan bizitzetik zuri-beltzera pasatzea izan ze-

la oso adierazgarria da.

Zerk egiten du horren berezi biharko eguna?

Edurne Bilbao: Ikastolak bide bat egin du, baina hau ez da hemen amaitzen. Aurrera egiteko bidean, geldialditxo bat da biharkoa. Orain arte ikastolaren bueltan ibili den jende horri guztiari eskerrak emateko eta egindako guztia elkarrekin ospatzeko geldialdia. Joseba Bilbao Ikastolako gurasoaren heriotzak apur bat ilundu ditu ospakizunak, baina bere eta gainerako omenez, biharkoa egun handi bat izatea lortu behar dugu. Izan ere, eragile askok babestu dute proiektu hau. Ikastola babesteko sortu zuten Elgoibarko Izarra, Danobateko guraso talde handi bat mugitu zen ikastola sortzeko ametsa egi bihurtzeko, Danobatek berak eman zuen ikastola sortzeko lur saila, Elizaren babesa ere ezinbestekoa izan zen ikastolaren hasierako urte haietan, Udala ere hor izan da beti, profesionalak izan ditugu, baina beste ezeren gainetik, hasierako guraso haiek egindako apustua nabarmendu nahiko nuke.

“Esperimentazio etengabea ari dira Ikastolan, baina ganoraz”

Ikastolaren egun berezia ospatuko duzue bihar. Zelan bizi duzue hau guztia?

Ane Kortaberria: Ziur ondo pasatuko dugula, ikastolaren egun berezia izango denez, askoz gauza gehiago egongo direlako.

Nora Kortaberria: DBH3koek antolatzen dute urtero Ikastolaren Eguna, eta guri aurten ardura handiagoa tokatu zaigu, biharkoa berezia izango delako. Denok ari gara lanean. Maila guztietako ikasleak inplikatu dira, eta gela bakoitzak ardura bat izango du. LH3koekin batera, Altxorraren Bila antolatuta dugu guk, baina gauza asko daude egiteko, eta jakina, beste gauza batzuetan ere lagundu beharko dugu. DBHn nago orain, eta ez dakit gero zer ikasiko dudan, baina Ikastolan oso gustura ibili naiz. Lagun artean ibili gara, eta Ikastolara lanera etortzen garen arren, eroso eta gustura sentitzen naiz hemen.



Josu Mujika

Lehen promozioiko ikaslea

4 urte nauzkan ikastolan hasi giñanian. Han dana euskaraz ematen zan, eta gogoratzen dot denbora luzia pasatzen genduala jolasten eta abesten. Eguraldi ona zaguarian San Rokera joaten giñan, eta han jolasian pasatzen genduan arratsaldia. Eskulanak eta marrazketa asko lantzen genittuan (garai hartako lehenenguak izan giñan gai hórrek lantzen) eta material oso koloretsua genduan.

Nik lokal danak pasatu nittuan: lehenengo Lorituanekua, eta gero nire tiak orain Lekueder daguan tokixan zaukan etxebizitza bat. Han egon giñan etorri berri zan Nekane Iturberekin. Gero Elizako lokaletara pasatu giñan, eta, geruago beste lokal batzuk ere ireki zittuzten, Ikastola hazten eta jendetsuagoa bihurtzen zihuan heñian. Nire irakasliak Itziar, Nekane, Juanita eta Marisabel izan ziran.

Etxian dana euskaraz egitten genduan. Nire anaixak kolegixuan zebizen, eta eskolara jua bihar giñala eta ni poztu egitten nintzianian eurek ez zebeu ulertzen. Ez zebeu ulertzen zelan pozten nitzan eskolara juatiagaittik!

Material aldetik, *Martin Txilibitu* eta *Xabiartxo* ziran gure ardatza; erderaz, berriz, *La Enciclopedia* zan nagusi.

Aktibitate estraeskolarrak ere baziran: baleta señorita Rosarekin (zer esango dizut! neretzat baleta munduko gauzarik onena zan), eta txistu ikasketak elizako lokaletan, Antonio Azpiazurekin. Inglesa ere ematen zigun Maria Angeles Kortabitartek. (Denak ere ikasgai harrigarriak garai hartarako).

Argi dago orduko gurasuek sekulako baloria eduki zebela: ideal bat jarraitzia, euskeria mantentzeko ahalegiñan jardutia eta beste. Eta andereño Itziarrek eta orduko beste andereñuek ardura haura hartzia ere... Hemendik nire eskerrik beruenak eurei, ikastolan ikasitako guztixa oso baliagarria suertatu zaidalako gerora.



M^{re} Ixabel Aizpurua

Ikastolako irakaslea

Ikastola, gora gure ikastola kanta dezagun bihar. 50. urteurrena ospatzen ari gara, hogeita hamaseigarrena egin dut nik. 1976an hasi nuen ikastolako ibilbidea. Maalako mojen eskola txikia hustu genuen andereño Jesusa zenak eta biok. Han ezagutu genuen elkar, hurreki-maitasunak batu gintuen, heriotz mingarriak banandu arte. Han ireki genuen hartzaindegia, gure lehen ikasle ahaztezin haiekin: Lucia, Elena, Beñat, Imanol... Sukaldariak, Edurnek, zein janari goxoak presatzen zizkigun! Proiektu aurrerakoa zen garai hartan; zenbat zalantza eta galdera! Gela haietan une goxoak bizi izan genituen haur, guraso eta irakasleok. Haurraren bila etortzean, elkarrekin kafesnea hartu eta eguneko gorabeherak elkarri kontatzen genizkion. Zein une ederrak!

Hartzaindegiko proiektu hura bukatu zenean OHoko 1. eta 2. mailara pasatu nintzen. 18 urte egin nituen han; urte politikak baita ere! Oso pozgarria da haurrak Haur Hezkuntzan ikasi duen guztia egun batetik bestera kanporatzen ikustea: irakurtzen eta bere nahiak idazten hasten denean, zoragarria! Ikasturtea bukatzeko, Aubixara, motxila hartu eta lehen aldiz gurasoengandik urruti egun batzuk igarotzera. Zenbat jolas, kantu, desfile, diskoteka saio, irri, malko..! Une ahaztezinak!

2003an HHko 0tik 3ra arteko gelak irekitzea erabaki zen. Han hasi nintzen lanean 2 urtekoekin; zein adin aberatsa! Egun batetik bestera hitz egiten hasten dira, gorderik izan dutena kanporatzen. Hori sentitzeak ez du parekorik!. Zenbat musu eman eta jaso ditudan! Gurasoekiko harremana ere oso hurbilekoa da adin horretako hurrekin. Urte hauetako bizipenekin batera Mari Isabel Zabaleta zena etorri zait gogora, zenbat paper bete behar izaten zituen baimenak eta dirulaguntzak eskatzeko. Beti laguntzeko eta erantzuteko prest genuen.

Bizipen hauek azaltzerakoan konturatu naiz ikastolan eman dudana baino gehiago jaso dudala, benetan une hunkigarriak eta ahaztezinak pasatu ditudala. Ikastolari dudan onena eskaini ondoren nire ibilbidea bukatzean dago, eta esan behar dut etorkizuna bermatua dagoela azken urteetan nire ondoan izan ditudan gazte kementsuekin. Euren esku dago-eta geroa. Hasi dudak kantarekin bukatu nahi dut: *Ikastola, gora ikastola* urte askotarako.

EGITARUA

10:00 Iratzarri alaia dultzaineroekin.

10:25 Udal korporazioa, ikastolako ordezkariak eta ikastolako lehendakari izandakoak San Bartolome parrokiara joango dira, Elgoibarko Udal Txistulari Taldeak lagunduta.

10:30 Ospakizuna parrokian, Elizako abesbatzarekin, Haritz dantzari taldearekin eta Udal Txistulari taldearekin.

11:00 Elgoibar Ikastolari harrera ofiziala egingo diote udaletxean.

11:15 Altxorraren Bila jolasa Lehen Hezkuntzako 3-4-5-6 mailakoentzat. Kalegoen plazan hasi eta ikastolan bukatuko da.

12:00 Ongi-etorria ikastolan bertan. Ondoren, erdiko aretoan, 50 urtean eragile izan diren guztiei omenaldia. Urteurreneko plaka bis-taratuko dute, eta denen artean urteurrenaren aitzakian grabatu

duten kanta abestuko dute. Ikastola bisitatzeko aukera izango da.

12:30 Pottokak izango dira bulegoko aparkalekuan, eta jolasak eta tailerrak bulego aurrean eta goiko pistetan. Frontoian puzgarriak jarriko dituzte.

13:30 Zozketa txikieneztat.

14:30 Bazkaria kanpoko pistetan. Postrean 50 kandela itzaliko dituzte denen artean.

15:30 Puzgarriak, bertsolariak... Bitartean mendian ibili direnen aipamena. Errifaren zozketa egingo dute, eta sariak banatu. Mus txapelketa ere antolatu dute, eta *Ezetz asmatu pisua* enkantea.

16:30 Dantzaldia.

19:00 Mausitxa txarangarekin kalejira Kalegoen plazaraino.

Erretratu zaharra

1977

Aste honetako erretratu zaharrak Yolanda Cornejok ekarri ditu BARRENEKO erredakziora. 1977ko argazkiak dira, futbol partida berezi batean ateratakoak, hain zuzen ere. Gaur egun Doymak enpresa denak, garai hartan Zuzendu zeukan izena, eta hango langileak dira protagonistak. Urtero jokatzeko zuten ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol partida bat, eta urte hartan, ezkonduak irabazi zuten 2-1. Gogora ditzagun zeintzuk ziren futbolari haiek:



Ezkonduak -> Goian: G. Zambrano, C. Sanz, A. Azpilikueta, C. Colmenero, E. Armero(t).

Behean: E. Perez, N. Jimenez, A. Pinto, C. Martin.



Ezkongabeak -> Goian: Atorrasagasti II, L. Gurrutxaga, Martinez, Quintana, Abad, Atorrasagasti I.

Behean: Prada, Ordoyo, Andres (t), Irazabal eta Cornejo (t).



trinitateak

Trinitateak, begiratu batean

Bero sargoria eta ekaizta izan ziren protagonista asteburuan, baina egualdia ez zen oztopo izan prestatutako ekitaldi guztiak aurreikusita zeuden moduan egiteko, eta giro onean joan dira aurtengo Trinitateak. Elgoibarren eta Mendaron ospatu dituzte jaiak, eta BARRENEK ondorengo bi orrialdeetan jaso ditu asteburuko irudiak. **Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoiBARREN.net**



Etxeko txikiek hartu zuten nagusien lekukoa domekan.

Bob Esponja marrazki biziduna izan zen umeen karrozako protagonista.



Inudeak, Kalegoen plazan



Txuri-urdin kolorea hartu zuten herriko kaleek domekan, Inazio Bereziartuak antolatutako umeen danborradarekin.




Jaime Zamakolak (eskuman) irabazi du Egur arte eskolak antolatutako kaleko margo lehiaketa.

Herriarrek adi-adi begiratu zituzten artisauen lanak.



Zapatu arrats musika eskola



Denetariko artista artisau azokara.



Xabier Leteren irudia egin zuen artista



250 bat lagunek hartu zuten parte nagusien danborradan.



Mikel Etxaniz izan zen sukaldarien gidaria.



Javier Linazisoro artilleroa omendu zuen Atabal elkarteak.



Ikastolaren 50. urteurrena izan zen nagusien danborradako gaia.



Dantzari txikiek maila handia eman zuten.



39 plaza egin zituzten Belarretaren hiru idiek 2.100 kiloko Harri Beltzarekin.



Evaristo Valdes omendu zuen Elgoibarko Udalak, Trinitateetako azoka bereziaren alde eginiko lanagatik.




lean egin zuten dantza saioa Inazio Bereziartua ikasleek.



Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasle eta irakasleak.

Arg.: Soarte



Animaliak gertutik ikusteko aukera izan zuten herritarrek.



Label produktuak dastatzeko aukera izan zen zapatu goizean.



Behiak dotore-dotore, ganadu ferian.



Trikitilari eskolako ikasleek alaitu zuten kalea.



Jende asko batu zen Mendaroko Trinitaten, Ikastolako umeen bertso saioa ikusteko.



Gogotik lehiatu ziren mendarorak herri kirolean.



Umore onez kantatu zituzten bertsoak Mendaroko umeek.



Mendarorrek mutrikuarren kontra jardun zuten trontzan.



Mendaroko umeak Pakito Txokolateroren doinuen erritmora egin zuten dantza.



Urazandiko espaloia egoera txarrean dago: "Urazandi auzoko espaloia ez dute batere zaintzen, eta oso zaharkituta dago. Baldosak solte daude eta leku askotan zuloak ere badaude. Lur zorua gastatuta dago, eta euria egiten duenean, bereziki, oso labain jartzen da. Kalean egiten duten bezalaxe, gure auzoko espaloiak berritzea nahiko genuke".



Iñigez Karkizao kalean etxe berriak egin dituzte, baina ingurunea ez dute zaindu: "Etxe berriak egitea ondo dago, baina ingurunea hondatu gabe. Urarentzako kanala ez dute ondo egin, eta euria egiten duenean zikinkeriaz betetzen da. Bestalde, lehendik han bizi garenak ez gaituzte kontuan hartu: Etxeko leihotik metro gutxira jarri dizkigute zabor edukiontzia, eta usaina etxe barruraino iristen zaigu. Horrez gain, fatxadak pitzatu egin dira, eta horrelaxe laga dituzte. Etxe berriak dotore-dotore, eta geureak gero eta okerrago".



Zuon kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-741 626



Eskerrik asko Atabal danborrada elkarteari: "Elgoibar Ikastolaren ize-nean, eskerrik asko Elgoibarko Atabal danborrada taldeari, aurtengo danborrada Ikastolaren omenez antolatzeagatik. Sekulako giroa jarri zenuten! Ea 50 urte barru elkartzen garen!".



ESKERTZA

JOSEBA BILBAO GARATE

2012ko ekainaren 4an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

SEBASTIAN LEYARISTI GARATE

2012ko maiatzaren 31n hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





‘BERRIA’ egunkariak 5.000 laguntzaile behar ditu, gaur egungo komunikazio proiektuari eusteko

Paperaren salmentaren eta publizitatearen jaitzierak egoera zailean jarri du Berria Taldea

Berria egunkariak denon babesa behar du irauteko. Euskarazko prentsearentzako diru laguntzetan izandako murrizketek eta horrenbestetan aita-tzen den krisiak oso egoera zailean jarri du Berria Taldea ere, eta hori dela eta, *Zure ziztada behar dugu* kanpaina abiatu dute, Berialagunak egiteko. Berialaguna Berria Taldearen proiektuak sostengatzen dituen komunitatea indartzeko sortu duten figura da, eta kanpaina bultzatu dutenen esanetan, gutxienez 5.000 behar dituzte, euskarazko komunikabide nazionalak aurrera egin dezan. Herriz herri ari dira orain kanpainaren berri ematen, eta Elgoibarren ere egin dituzte bi batzar *Berria* egunkariaren egoeraz ohartarazteko, eta proiektuaren alde diru ekarpen bat egiteko prest dauden lagunak batzeko.

Euskarazko komunikabideen gaitza da: Diru laguntza publikoak murriztu egin dira [*Berriaren* kasuan, %9 egin dute behera aurretan], eta publizitate sarrerak ere nabarmen txikitu dira [heren bat]. Dirutara eramanda, azken urteetan 1.300.000 euro galdu dituzte publizitatean. Era berean, hedabideen kontsumo ohiturak ere aldatuz doaz. Egunkariaren



salmenta jaisten ari da [*Berriarena* ez da horrenbeste apaldu, harpidedunen leialtasunari esker], eta, aldiz, informazioa Internetez jasotzen dutenen kopurua etengabe ari da hazten. www.berria.info webguneak, esate baterako, batez beste 18.000 bisitari ditu egunero. Internetek, baina, ez du gaur gaurkoz dirurik ematen, eta epe laburrean ere nekez emango du webgune bati eusteko lain. Hala, edukiak libre eta doan ematen jarraitzeko eta Interneteko zein papereko eskaintzari eutsi

eta ahal den neurrian hobetzeko, BERRIALAGUN egitera deitu dituzte elgoibartarrak eta mendaroarrak.

Berriaren lagun izateko, urtero diru ekarpen bat egin daiteke, norberak lagatzea erabakitzen duen arte. Informazio gehiago nahiz izanez gero edota diru ekarpenak nola egin jakitzeko <http://www.berria.info/berrialaguna> webgunera jo behar da edota 943 304 345 telefono zenbakira deitu.

Ane Odria



Zergaitik egin duzu bat Berria Taldeak abiatu duen 'Zure ziztada behar dugu' kanpainarekin?

Berria egunkariak denon babesa behar duela iruditzen zaidalako. *Berria* da euskara hutsean idazten den egunkari

bakarra, eta ez nuke inondik inora ere euskarazko egunkaririk gabeko Euskal Herriko ulertuko. *Berria* desagertzea benetan penagarria izango litzateke, horrek egunkariak osatzen duten komunikazio-sarean euskarak lehentasuneko tokirik ez duela esan nahiko lukeelako. Eta hori, jakina, euskararen normalizatorako bidean beste atzerapauso bat izango litzateke. Besteak beste, hori gerta ez dadin egin dut bat *Zure ziztada behar dugu* kanpainarekin.

Zer eman dizu zuri *Berria* proiektuak? Zergaitik ikusten duzu babestu beharra?

Berria egunkaria bertatik eta bertako-

entzat sortua da, nazionala eta euskaldun elebakarra. Bertako zein kanpoko albisteak txukun zabalitzen asmatu duela iruditzen zait eta, bai paperean bai www.berria.info webgunean, kalitatezko eskaintza bat ematen duela uste dut. Azken finean, Euskal Herriko zein munduko albisteak gure-gurea den begirada batetik jasotzeko aukera ematen dit *Berriak*, eta horregatik ikusten dut babestu beharra. Gaur egun, gainera, krisia sekula baino gogorrago dabilen egunotan, benetan garrantzitsua iruditzen zait ekimen txikiak babestea, zalantzarik gabe, txikiak direlako krisiak gogorren astindu dituenak.

Mikel Olaizolak eta Eneko Beretxinagak irabazi dute Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako Elgoibarko saioa

Ekainaren 15ean jokatuko dute finalerdia, Soralezeko Gaztetxean

Joan den barixakuan jokatu zen Plazatik Gaztetxera txapelketako laugarren kanporaketa Elgoibarko Gaztetxean, eta Mikel Olaizola eta Eneko Beretxinaga bikoteak irabazi zuen. Ehundik gora lagun batu ziren Gaztetxean bertsoari txalo jo eta giroa berotzeko, eta Aitor Gisasola antzerkilariak gai-jartzaile lanetan egindako lanak ere lagundu zuen horretan. Umorerik ez zen falta izan, eta entzuleak gustura egon ziren.

Epaileek Mikel Olaizola eta Eneko Beretxinagari eman zieten buruz burukora pasatzeko txartela, eta publikoak, oster, Aimar Goenagari eta Ion Mikel Mujikari. Bi talde horiek jokatu zuten buruz burukoa, eta epaimahaiak Mikel Olaizola elgoibartarrak eta Eneko Beretxinaga soralezearrak osatutako bikoteari eman zion finalerdietarako txartela. Ekainaren 15ean jokatu dute hurrengo saioa Soralezeko Gaztetxean, eta finala Eibarren izango da, ekainaren 30ean.



Arxiboko irudia

Kokein eta Muturbeltz taldeek kontzertua emango dute gaur, Elgoibarko Gaztetxean



Kokein



Muturbeltz

Zazpiki kultur elkarteak eta Gazte Asanbladak antolatuta, Kokein eta Muturbeltz taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, Elgoibarko Gaztetxean. Kokein boskote eibartarrak *Izan* diskoa aurkeztuko du. CD formatoa alde batera utzita, Internetez eskuratu daiteke rock estiloa biltzen duen disko hori. Muturbeltz taldeak, aldiz, *Amildegia Maite* lehen diskoa aurkeztuko du. 22:30ean hasiko da kontzertua, eta sarrerak 5 euro balio ditu.

Laumono taldearen kontzertua ekainaren 15ean

Laumono talde mutrikuarrak kontzertua emango du datorren barixakuan, Kultur Etxeko sotoan. 90eko hamarkada amaieran sortu zuen Jon Iturrinok taldea, eta hasieran Deep Purple, Hendrix edo Led Zepelin bezalako hard rock taldeen bertsoiak jotzen zituzten. *Andrenalinia* dauka izena euren azken lanak, eta blues, hard rock eta fusion eritmoak dira nagusi. Sinuosek antolatu du kontzertua, eta sarrera hiru euro kobratuko dute.



Hip hop ikastaroak

Dance&Smile taldeak hip hop ikastarak antolatu ditu ikasturte berrirako, eta umeentzako zein gazteentzako taldeak egongo dira aukeran. Informazio gehiago, 679 237 611 (Maria) telefonoan.

Josu Mendikute izan da elgoibartarrik onena Hiru Handiak mendi ibilaldian

Hamasei elgoibartarrek bukatu zuten proba

Beroak guztiz baldintzatu du aurten Gorbea, Anboto eta Aizkorri mendiak batzen dituen Hiru Handiak iraupen luzeko mendi martxa. 1.258 lagun abiatu ziren barixaku gauerdian, tartean hogei elgoibartar, baina horietako lauk proba laga behar izan zuten, arazo fisikoak tarteko. Elgoibartarren artean, Josu Mendikutek egin zuen denborarik onena (16:40:48). Guztira, 792 lagunek lortu zuten ehun kilometroko ibilbidea osatzea.



Abiatu zirenetatik 452k bertan behera laga behar izan zuten proba, eta hamalau kontrolez kanpo iritsi ziren (24 ordu baino gutxiagoan bukatu behar da). Beroak min handia egin zien parte hartzaileei, hala ere, irabazleek, Iker Karrera amezketarrak eta Oihana Azkorbebeitia abadiñoarrak errekorrak ondu zituzten. Karrerak 10:23ko denbora behar izan zuten proba amaitzeko, eta horrenbestez, orduerdian jaitsi zuten aurreko errekorra. Azkorbebeitiak ere errekorra ondu zuen, 13:27ko denbora eginda.



Hiru Handietako sailkapena

Hamasei elgoibartarrek amaitu zuten domekan Hiru Handiak iraupen luzeko zeharkaldia. Lauk, berriz, laga egin behar izan zuten, arrazoi ezberdinak tarteko.

118 Josu Mendikute	16:40:48
387 Arkaitz Irureta	19:49:17
388 Joseba Elustondo	19:49:18
394 Tomas Arrieta	19:52:34
414 Jesus Beristain	20:05:29
443 Patxi Gomez	20:25:22
451 Fernando Loiola	20:32:39
521 Modesto Cid	21:08:18
522 Antton Arizmendi	21:08:21
584 Ioritz Conde	21:47:23
585 Josu Idiakes	21:47:25
603 Iban Murua	22:01:13
755 Jon Peli Uriguen	23:22:49
756 Edu Uranga	23:22:50
757 Jon Iglesias	23:22:55
758 Gurutz Aizpurua	23:22:59

Proba laga behar izan zutenak

Josu Aizpurua
Julen Azpiazu
Iñigo Lariz
Ainhoa Lendinez

Domekan jokatu dute 10 Bai torneoko finala



Artxiboko irudia

Finalaren atarian da 10 Bai torneoko finala. Finalerdietan Agirrebeña-Atano eta Karmel-Unai Loiola lehiatu ziren batetik, eta bestetik, Basueta-Portu eta German-Eneko Loiola. BARRENEko edizioa ixteko orduan argitu gabe zegoen zeintzuk izango ziren finalistak, baina irabazleek elkarren kontra jokatu dute domekako finalean. 12:00etan hasiko da partida, Kalegoen plazako frontoian.

Pala txapelketa

Emakumezkoen pala txapelketa datorren astean hasiko da, okerrik ezean. Guztira, hamabi bikotek eman dute izena, eta antolatzaileek eguazteneko batzarraren ostean zehaztuko dute egutegia.

'50 urte 50 mendi' egitasmoaren barruan Kalamuara irteera

Elgoibar Ikastolaren 50 urte 50 mendi egitasmoarekin bat egin du Morkaiko mendizale elkarteak, zehatzago esateko ikastolako gurasoek Kalamuara (533 metro) antolatu duten irteerarekin. 10:00etan irteerara irteeratik bertatik. Informazio gehiago nahi izanez gero: <http://www.mendikat.net/monte.php?numero=767>

Unai Arrieta, beste urtebetez Naturhouse La Riojan

Arazo fisikoak gaindituta, kontratua beste urtebeterako luzatu du Unai Arrieta elgoibartarrek Naturhouse La Rioja eskubaloi taldearekin.

Kadeteen Nazioarteko futbol txapelketa jokatuko dute Mintxetan

Zapatuan eta domekan jokatuko dituzte partidak



Kadeteen nazioarteko futbol txapelketa antolatu du CD Elgoibarrek astebururako, eta Real, Athletic, Oxford City eta CD Elgoibarko taldeek jokatuko dute. Liga estiloan jokatuko dute, denek denek kontra. Zapatuan jokatuko dituzte lehenengo partidak, eta domekan izango da finala. CD Elgoibarko antolatzaileek asteburu osorako egitaraua prestatu diete Oxford City-ko jokalariei: Gaur iritsiko dira jokalariek, eta lehenik Lezamara joango dira. Ondoren, Mintxeta erakutsiko diete eta 18:00etan harrera egingo diete Elgoibarko udaletxean. Bihar, Zubieta eta Anoeta ikustera joango dira eta iluntzean, Zubi-Ondo elkartean egingo dute afaria. Azkenik, domekan, San Mames bisitatuko dute Londresera joan aurretik.

Jabier Osorok irabazi du Hiru Txirlo txapelketa

Eibarren jokatu zuten joan den asteburuan Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako azken jaurtialdia, eta Jabier Osoro aias-tiarrak irabazi zuen, lau txirlorakin. Garaipen horri esker, berak irabazi du txapelketa, 22 txirlorakin.



'Elgoibar bi erroberatan' egitasmorako bizikletak konpondu daitezke datorren astean

Elgoibar bi erroberatan egitasmoa antolatu du Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkar-teak ekainaren 17rako, eta nahi duenak bizikletak konpontzeko aukera izango du datorren astean. Lagun Taldea txirrindulari elkartekoen laguntzarekin, bizikletak prestatzeko tailerra eskainiko dute hilaren 11tik 14ra, 17:30etik 19:30era. Ekainaren 17an, 10:00etarako jarri dute hitzordua Kalegoen plazan, eta ondoren, Sallobentera joango dira guztiak bizikletaz. Itzulerarako luntx txiki bat prestatuko dute Kalegoen plazan. Horrez gain, 2tik 4 urtera arteko umeentzako motor txikien lasterketa prestatu dute.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Elgoibar 22 – Errenteria 20 (Kad.)

Elgoibar 22 – Errenteria 2 (Jub.)

Elgoibar 22 – Errenteria 9 (Nag.)

Udaberri Txapelketa

Lagunak 22 – Bergara 19 (Nag.)

AGENDA

ESKUBALOIA

Domeka, 10

10:00 Sanlo aleb. – Sanlo benj. (Nesk.)

11:15 Sanlo benj. – Bidasoa (Mut.)

Ekainaren 16an izango da Sanloren festa

Ekainaren 16rako antolatu du Sanlok denboraldi amaierako festa. Aurten Ikastolako pistetan egingo dute. Egun berean, Baionara egingo dute irteera benjamin eta alebinek, gurasoekin. Bestalde, Sanlo Eskolan izena eman nahi dutenek ekainaren 20tik 22ra dute aukera.

Herriarteko pilota txapelketako final laurdenak jokatuko ditu Elgoibarrek

Errenteriaren kontrako sei partidak irabazi ostean, Hernaniren kontra jokatu du Elgoibarrek Herriarteko pilota txapelketako final laurdenetan. Asteburu honetan jokatuko dituzte joaneko partidak Hernanin, eta itzulerakoak datorren asteburuan izango dira, Elgoibarren. Hernanik ere partidak guztiak irabazi ditu final zortzirenetan, Arrasateren kontra.

Espainiako Iparraldeko Fitness txapelketa jokatu du Dani Arenasek

Dani Arenas elgoibartarrak Espainiako Iparraldeko Fitness txapelketa jokatu du domekan, Galizian. Gogor entrenatzen ari da, eta Donostiako Kursaal aretoan lortu zuen laugarren postua hobetu nahi du.

LANA

ESKAERA

- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest eta garbiketak edo saltzaile lanak egiteko ere bai. Papelak eta erreferentziak ditut. ☎ **636 419 814**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia handia. ☎ **685 729 790**
- Esperientziadun emakumea gauzez nagusiak zaintzeko prest. Papelak legez ditut. ☎ **670 551 133**
- Esperientziadun neska enpresa txikien eta autonomoen kontabilitate eta zerga aitorten lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **626 642 965**
- Bi neska euskaldun, uztailean klase partikularrek emateko prest. Ingelesa izan ezik. ☎ **671 403 213**
- Bi neska euskaldun, uztailean umeak zaintzeko prest. ☎ **630 055 077**
- Ingeles klase partikularrek ematen ditut, etxez etxe. ☎ **943 744 062**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketala lanak egiteko prest. ☎ **626 052 165**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketala lanak egiteko prest. ☎ **636 419 814**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketala lanak egiteko prest. ☎ **699 232 823**

- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko edota garbiketala lanak egiteko prest. ☎ **682 255 834**
- Neska elgoibartarra (24 urte) eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **616 883 097**
- Klase partikularrek ematen ditut: Batxilergoko matematika, LH, DBH, ekonomia eta kontabilitatea. ☎ **666 042 710**
- Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. ☎ **943 741 042**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edota garbiketala lanak egiteko prest. ☎ **636 423 493**

ESKAITZA

- Hemengo pertsona bat behar da umeaz arduratu eta ikastolara eramateko. Irailetik aurrera. ☎ **628 623 551**

ETXEBIZITZAK

- Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **649 360 378**
- Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **620 664 454**
- Teilatu altua duen ganbara alokatzen dut Elgoibarko erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna, argi naturala, igogailua. Altzariekin. ☎ **616 111 603**


- Lau gelako etxebizitza alokatzen dut Urazandin. Oso eguzkitsua. Altzariekin. Prezio onean. ☎ **943 742 927 / 616 533 646**
- Pisia alokatzen dut Errosario kalean. Logela bat, egongela, komuna eta sukaldea. ☎ **630 374 124**

BESTELAKOAK

- Bikientzako materiala salgai: maxi-cosi, trona... Egoera onean. ☎ **669 754 754 (Eguzkifite)**

KINTOAK

- 1952an jaio eta aurten 60 urte egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute ekainaren 16an, Belaustegi jatetxean. Interesatuak 85 euro sartu behar dituzte, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: **3035 0007 26 0071124362**. Joan-etorria autobusez.
- 1972an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute irailaren 15ean, Sigma jatetxean. Bala-tokian aterako dute erretratu, 13:00etan eta ondoren luntxa egingo dute Tantaka tabernan. Interesatuak 60 euro sartu behar dute, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 22 0071124579.




I. URTEURRENA

MANUELA ANSOLA AYERDI

2011ko ekainaren 1ean hil zen, 62 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen dizue haren oroimenez egin den I. urteurreneko mezan parte hartu izana.





JOSEBA BILBAO GARATE

Beti izango zaitugu gogoan baina batez ere Ikastolaren 50. urteurrena ospatzen dugun honetan. Zure irribarrearekin kontaktzen dugu!

Ikastolako DBH-3ko ikasle eta guraso guztion partez.





• Zorionak, **Asier**, martitzenean zure eguna izan zelako. Etxekoen, lagunen eta bereziki arrea Oihaneren partez. Bederatzi muxu.



• Zorionak, **Sara**, zure zazpigarren urtebetetzean. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Alex**, gaur zure urtebetetzea dela-ko. Zazpi kandelak itzaltzeko prest? Muxuak etxekoen eta bereziki Mikelen partez.



• Zorionak, **Susane** gaur 5 urte betetzen dituzulako. Muxu asko familiakoen eta bereziki Nahiaren partez.



• Zorionak zure lehen urtebetetzean, **maravilla**, egunero zoriontsu egiten gaituzulako. Muxuak familiakoen partez.



• Zorionak, **bikotel** Azkenean iritsi da zuen eguna. Oso ondo pasa! Familiakoen partez.




• Zorionak, **Garazi**, martitzenan 8 urte bete zenituelako! Muxu handi bat familia guztiaren partez. Ondo pasa domekan!



• Zorionak, **Juan**. Martitzenan 5 urte, txapel-dun! Muxu handi bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Haizea eta Maddi**, ekainaren 4an 2 urte egin zenituztelako. Patxo handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **hirukotel** Egun politak igaro ditzazuela, eta urte askotarako! Muxuak, familiakoen partez.

TXAPELDUNAK



Zorionak, Herri Eskolako mutilak, egin duzuen denboraldi bikainagatik: eskola-kirolean (lehenak kirol guztietan) eta Gipuzkoako txapelketan (hirugarrenak, lehenengoekin eta bigarrenekin berdinduta). Txapel-dunak zarete! Segi horrela, gazteak.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

Erretratu bakarreko agurra 4€,
argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra 3€,
argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia**
baino lehen ekarri behar dira
BARRENEKO bulegora, 12:00ak
baino lehen, edo
barren@elgoibarkoizarra.com
e-postara bidali.

LIRAIN ESTETIKA

**ESTETIKAKO ZERBITZU GUZTIAK!
ASTELEHENETAN DIETISTA KONTSULTA!**

San Inazio, 4
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
618 259 343
lirainestetika@hotmail.es

Ekainaren 13an, asteazkena,
txapa tailerra
ludotekan! 17:30ean

Gamarrara irteera uztailearen 5ean!
Eman izena ekainaren 28a baino
lehen. Prezioa: 4€

8 barixakua

Dantza

20:00 Biraka jaialdia

Biraka dantza taldekoek kurtso amaierako jaialdia egingo dute, Herriko Antzokian.

Musika

22:30 Kontzertua

Kokein eta Muturbeltz taldeak, Gaztetxean. Sarrera, 5 euro. Zazpiki eta Gazte Asanbladak antolatuta.

9 zapatua

Ospakizuna

10:00 Ikastolaren 50.

urteurreneko ospakizuna

Kalegoen plazan hasiko da, eta ikastolan amaituko dute.

Kirola

10:00 Kadete mailako futbol

txapelketa

Athletic, Real, Oxford City eta C.D. Elgoibar. Mintxetan.

10 domeka

Kirola

10:30 Kadete mailako futbol

txapelketa

Athletic, Real, Oxford City eta C.D. Elgoibar. Mintxetan.

13 eguztina

Informazio saioa

17:00 Txandakako ingeniari

Informazio saioa, IMHn.

15 barixakua

Igerilekuak

11:00 Aire libreko igerilekuen

irekiera

Mintxetan.

Txotxongiloak

17:30 'Erreka Mari'

Elgoibarko Izarrak antolatuta, txotxongilo ikuskizuna. Kultur Etxeko sotoan.

Musika

23:00 Laumono

Sinuosek antolatuta, Mutrikuko Laumono taldeak kontzertua eskainiko du. Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 3 euro.

OKINDEGIA

10 domeka EIZAGIRRE

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

8	Yudego
9	Zabaleta
	Goizez: Garitaonandia
10	Zabaleta
11	Barrenetxea
12	Fernandez
13	Ibañez
14	Garitaonandia

Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Garitaonandia
Garitaonandia
Barrenetxea
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384



2012ko ekainaren 4an hil zen

JOSEBA BILBAO GARATE

*Betiko lagunak gogoan ditugu
bai izan zena, baita geroa
bihotz barnean gordeko dugu
zure alaitasuna eta giroa
esaera zaharrak dioen bezala
"urak dakarrena urak daroa"
betiko gurekin geratuko da,
Joseba, zuk emandakoa.*

Koadrilakoak





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Gremioen GIDA

Bekatu egin... ase zure gula!



www.belarustegi.com